

# HAUR HEZKUNTZA GRADUA

**Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea**

2024-2025 ikasturtea



## ANIZTASUNA ESKOLAN



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

*HEFA II: Oñati plaza 3, Donostia*

**Moduloko koordinatzailea**

Izaro Arroita ([izaro.arroita@ehu.eus](mailto:izaro.arroita@ehu.eus))

**Modulua osatzen duen irakasle taldea:**

**Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza.** Berta Echeberria  
([berta.echeberria@ehu.eus](mailto:berta.echeberria@ehu.eus))

**Informazio eta Komunikazio Teknologiak.** Josemi Correa ([jm.correagorospa@ehu.eus](mailto:jm.correagorospa@ehu.eus)),  
Orzuri Zabalo ([orzuri.zabalo@ehu.eus](mailto:orzuri.zabalo@ehu.eus)) eta Jon Sarasola ([jon.sarasola@ehu.eus](mailto:jon.sarasola@ehu.eus))

**Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru  
Eleanitzetan.** Izaro Arroita ([izaro.arroita@ehu.eus](mailto:izaro.arroita@ehu.eus))

**Eskola inklusiboaren oinarriak.** Oihana Otazu ([oihana.otazu@ehu.eus](mailto:oihana.otazu@ehu.eus))

## **AURKIBIDEA**

---

1.-SARRERA .....	4
2.-HAUR HEZKUNTZA GRADUARI DAGOZKION KONPETENTZIAK .....	5
3.-BURUTU BEHARREKO LANAREN EZAUGARRIAK .....	7
3.1. Taldeen egitura eta osaketa .....	7
3.2. Lan proposamenak: narratiba digitala eta egile testua .....	7
3.3. Lan tartekatuak .....	8
3.3.1 Moduluaren osagarri izango diren kanpo ekimen eta jarduera sorta .....	8
3.4. Amaieran entregatzeko lanak .....	8
3.5. Aurkezpena eta feedbacka irakasle tutoreekin (prozesuaren ebaluazioa) .....	9
4.-LAN PROZEDURA ETA EGUTEGIA .....	10
5.-EBALUAZIOA .....	11
I ERANSKINA: Taldea izendatzeko fitxaeredua .....	12
II ERANSKINA: Talde lanaren inguruko hausnarketa eta konpromisoak .....	13
III ERANSKINA: Haunarketarako txantiloia eta diagrama .....	15-16
IV ERANSKINA: Moduluaren ebaluazioa .....	17
V ERANSKINA: Aurkezpenak, taldeen arteko ebaluazioa .....	18
VI ERANSKINA: Ebaluazio irizpideak .....	19

## 1.-SARRERA

Gero eta aldakorragoa den gizarte eremuan, eskola -irakaskuntzaz eta ikaskuntzaz haratago doan- espazio moduan asko aldatzen ari da. Etengabe aldatzen ari dela esan genezake. Aldaketa horien oinarrietako bat, eskolan barne biltzen diren pertsonak gero eta askotarikoagoak izatean datza. Aniztasun hori oso izaera desberdinetakoa da gainera. Horregatik beharrezkoa dugu batetik aniztasuna kontzeptu gisa lantzea eta bestetik aniztasuna aintzat hartuta gure inguru hurbilean dauden praktika egokien azterketa egitea.

Guzti horretarako, modulu honetako irakasle taldeak aniztasun kontzeptura hurbilpen ahalik eta sakonena egiteko baliabideak eskainiko ditu, bai eta diziplinarteko lan hau egiteko behar diren aholku eta laguntza eskaini ere. *Helburua: aniztasunaren inguruan burutzen diren egitasmoak oinarri hartuta, hausnarketa lan bat egitea.*

Ikasketa plangintzan aurreikusten da ikasleek, ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA ardatz hartu eta bigarren lauhilekoko irakasgaien ekarpenak jasoaz, diziplinarteko lanbat garatzea. GIDA honetan zehazten dira lan horren nondik norakoak.

*Eskola Inklusiboaren Oinarriak, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) eta Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanizetan* irakasgaietako irakasle-taldeak lan hau proposatzen du irizpide nagusi batean oinarrituta:

Aniztasuna eta hezkuntza bezalako aztergai bati aurre egiteko aniztasunaren ikuspegia ertz desberdinetatik aztertu nahi dugu, horretarako, irakasgai ezberdinetatik abiatuta, ekarpen horietan oinarrituz, ikuspegi zabalagoa eman nahi diogu aniztasunaren gaiari. Horrela, moduluan parte hartzen duten irakasgaietatik haratago joan eta diziplina ezberdinetara zabalduko da proposamena, era askeago eta irekiago batean.

<i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i>	<b>DIZIPLIN ARTEKO LANA: ANIZTAS UNA ETA HEZKUN TZA</b>
<i>Berta Echeberria</i>	
<i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i>	
<i>Oihana Otazu</i>	
<i>Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</i>	
<i>Jose Miguel Correa, Orzuri Zabalo eta Jon Sarasola</i>	
<i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanizetan</i>	
<i>Izaro Arroita</i>	

## 2.-HAUR HEZKUNTZA GRADUARI DAGOZKION KONPETENTZIAK.

Atal honetan, Haur Hezkuntzako Graduari zein diziplinarteko lanari dagozkion konpetentziak biltzen ditugu. Aipatu konpetentziak modulu honetan garatzen diren jarduera guztien bitartez aintzat hartzen dira.

Konpetentzia orokorrak	Azalpena
<b>G003. IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA</b>	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.
<b>G004. BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA</b>	Ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo bizikidetasustatzea. Bizikidetzaren demokratikoaren arauak eraikitzean ikasleek parte har dezatela sustatzea eta gatazkak bake giroan konpondu daitezela elkarlanean ahalegintzea. Ikaskuntzaren eta bizikidetzaren testuinguruak sistematikoki behatzen jakitea eta horien inguruan gogoeta egiten jakitea, eta, oro har, ikasleen gaitasunak hezkuntzaren ikuspegitik eta etengabe ebaluatzeko tresna nagusi gisa behaketa erabiltzeko gai izatea.
<b>G009. HAUR ESKOLA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK</b>	Haur-hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamendua eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea.
<b>G010. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA</b>	Gurasoen orientatzaile gisa jardutea, familia-hezkuntzarekin loturik, 0-6 urte bitarteko epealdian, eta ikasle bakoitzaren familiarekin eta gainerako familia guztiekin izaten diren tratu eta harremanetan gizarte-gaitasunak menderatzea. Tutoretza eta koordinazio-lanak egitea tutoretza-ekintzarako proposamenak antolatuz, eta familiarekin eta hezkuntza komunitateko beste kide batzuekin elkarlanean jardutea eskolako jarduera ikaslearen gizarte eta familia mailako ingurunearekin harremanetan jartzeko eta hezkuntza-prozesuan eraginkortasun handiagoz eragiteko.

<b>G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO DISEINUA</b>	Haur-hezkuntzako ikastetxei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartearen hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har hezkuntza prozesuen konplexutasuna eta bereziki, irakas-ikaskuntza prozesua ulertzea, eta curriculum-osagai berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaileak burutu ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun ahal izango diena. Kalitatezko hobekuntza ereduak aplikatzen jakitea.
<b>G014. HAZKUNDE PERTSONALA</b>	Epealdi honetanneska-mutilen garapen emozional, sozial, kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea
<b>G015. KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAK</b>	Garapen integral baten testuinguruan, komunikazio-konpetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenezkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak).
<b>Diziplinarteko Moduluko Konpetentzia orokorrak eta didaktikoak</b>	<b>Azalpena</b>
M01CM05- ESKOLAREN EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	Haur Hezkuntzaren eguneroko dinamika aldarra ezagutu, beti ere ikasle, talde edota egoera kontutan izanik. Ikastetxearen barne eta kanpoko profesionalekin lankidetzan aritzeko gai izatea eta gelako aprendizai ere antolatzeke gai izatea, 0-6 urteko haur etapan.
M01CM07- HAUR HEZKUNTZA TESTUINGURUAN DESBERDINETAN KOKATU	Haur Hezkuntza hezkuntza sistemaren barnean kokatzeko gai izatea beti ere dagokion testuinguruaren arabera (Euskadi, Estatu, Europa mailan). Kanpo esperientzia internazional berritzaileak ezagutu. Familia eta ikasle bakoitzarekiko harremana baloratuz, hezkuntza kalitate eragile bezala.
M02-M03- EZAGUTZA PLASTIKO ETA ARTISTIKOAK	Hezkuntza bisual, erritmiko eta ahozkoa bideratzeko abestien erabilera eta ezagutza. Jolasa baliabide didaktiko bezala erabiltzen jakin eta jolasa oinarrituen aprendizai metodologia eta jarduerak erabili. Adierazpen plastiko eta sormen artistikoarekiko sentsibilizazioa bideratu eta sustatu.
M03CM01- GELAREN EZAGUTZA TEORIKO-PRAKTIKOA. HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK. IKAS KOMUNITATEA OSATZEN DUTEN KOLABORAZIO/LANKIDETZA SAREAK EZAGUTU.	Irakaskuntz jardunean parte hartu eta eguneroko praktikaren hausnarketa eta kritika eginez. Hobekuntza proposamenean parte hartu. Kolaborazio edota lankidetzak modu desberdinak ezagutzeko gai izatea (ikas komunitatearen parte direnak).

### 3.-BURUTU BEHARREKO LANAREN EZAUGARRIAK

#### 31. Taldeen egitura eta osaketa

Lau/bost kidez osatutako taldeak eratuko dira, eta horietako kide bat izendatu beharko da bozeramailea. Bozeramaile hau izango da irakasleekin harremanetan jarriko den arduraduna, eta edozein komunikaziorako erreferentzia. Taldeen osaketa irakasleek erabakiko dute, zozketaz edo alfabetikoki, beti ere Ordenagailu Taldeak (GO) errespetatuz.

Behin taldea sortu ondoren, lanari buruz hausnarketa egingo duzue: taldearen izena, talde arauak, konpromezuak. Azken urte hauetan talde lanak sortzen dituen arazo eta gatazkak zabaltzen ari direla ikusi dugu. Askotan, erdi ezkutaturik gelditzen dira lana egiten den bitartean eta lana bukatzeko momentuan azaleratzen dira, gauza handirik egin ezin denean. Horregatik, hasierako saio batean, behin taldeak finkatu ditugunean, landuko dugu talde bakoitzaren arau edo irizpide lana ongi egiteko.

Taldeko kide guztiek derrigorrez hartu behar dute parte klaseko saioetan, eta baita hortik kanpo burutzen diren jardueretan ere. Hori posible ez balitz, lanen banaketa egin eta irakasle arduraduna jakinaren gainean egon beharko da, uneoro.

Zenbait saiotara etortzen ez diren ikasleak taldearen parte izango balira (adibidez, balioztatuta dutelako irakasgairaren bat), parte hartu beharko lukete moduluko lanari eskainitako saioetan.

Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango.

Azkenik, arrazoi zehatzengatik, moduluko lana egin bai baina jardueretara edota klase presentzialetara etorri ezin duten ikasleen kasuak irakasle taldearen adostasunez onartuko dira, ikaskuntza prozesua behar bezala bermatu dadin, eta gutxieneko presentzia eta jardueren jarraipena erdietsiz.

#### 32. Lan proposamenak: narratiba digitala eta egile testua

Modulu honetan, aniztasuna gai nagusitzat hartzen da eta honen inguruan irakasleek esperientzia eta baliabide ezberdinak eskainiko dituzte, ikasleen artean hausnarketa sustatzeko, bai maila pertsonalean bai taldean. Batzuetan irakurketak eta solasaldi dialogikoak (artikuluak edo liburu atalak), edo ipuinak izango dira. Pelikulak, bideo eta dokumentalak ere ikusi eta aztertuko ditugu. Bestetan, unibertsitatetik kanpoko adituek eta elkarte eta erakunde ezberdinetako kideek eskainitako hitzaldiak, tailerrak eta formazio saioak baliatuko ditugu. Horrela aniztasunaz hausnartzeko hurbilketa akademikoa nahiz pertsonen bizipenetan oinarritutakoa proposatu nahi dugu.

Zuen gogoeta horiek, ikasgaietan landuko diren eduki desberdinek eta zuen lan eta hausnarketak, azken helburua den narratiba digital bat osatuko dute. Hemen ikasle taldeak erabateko askatasuna izango du aniztasunaren gaia bideratzeko, izandako esperientzia guztiei buruz edo taldeak hautatzen duenari buruz hausnarketa bat sakonduaz eta aurkeztuaz.

Narratiba digitalarekin batera “egilearen testua” ere aurkeztu behar da, lan idatzi bat. Lan honetan narratiba hori egiteko taldeak burutu duen prozesua eta hausnarketa jaso beharko ditu. Nolabait narratiba osatzeko balio behar du bi zentzutan: alde batetik, narratiba digitalean islatu ezin izan dena azaltzeko, eta bestetik, egindako irakurketekin eta izandako esperientziekin loturak edo harremanak sortzeko. Hausnakerta burutzeko “hausnarketa txantiloia” duzue orientabide gisa, irakasgai bakoitzak oinarrizkoak diren galdera irizpideak bertan azaltzen dituelarik. Zuen proposamenaren eta izandako esperientzia nahiz irakurketen artean harreman koherente eta aberatsa sortzea ongi baloratua izango da.

### **33. Lan tartekatuak**

Lan prozesua jarraitua eta dinamikoa izango da. Burutuko ditugun lan ezberdinek eta jarduera osagarriek prozesuaren izaera jarraitu hori bermatu behar dute. Garrantzitsua da lauhilekoan zehar zuen esperientzia eta gogoeten inguruko ideiak eta oharrak jasotzea modulan sortuko diren tresnak hornitzeko.

Izan ere, proposatuko diren lan eta esperientzietan oinarrituta, etengabeko hausnarketa egingo duzue aniztasunaren inguruan, eta gogoeta horiek baliatuko dituzue azken ekoizpenak sortzeko. Funtsean, narratiba digitala hausnarketa horrek elikatuko du. Egilearen testuan, berriz, prozesua deskribatu eta baloratu beharko da (lana nola eraiki eta osatu den adieraziz), beti ere egindako lan eta esperientzia guztiak harremanetan jartzen saiatuz.

#### **3.3.1 Moduluaren osagarri izango diren kanpo ekimen eta jarduera sorta**

Esan bezala, modulu honek kanpoko eragile zenbaiten presentzia izango du. Lanaren helburua da aniztasunaren ikuspegi zabalago bat jasotzea eta horrek lotura zuzena dauka beste begirada batzuekin ere. Lauhilekoan zehar osatzen joango gara eskaintza hori, kanpoko adituek eskainiko dizkiguten hitzaldi, tailer eta bestelako formazio-saioekin.

### **34. Amaieran entregatzeko lanak**

Bukaeran ikasle taldeek aniztasuna eta hezkuntza ardatz hartuta bi lan entregatu beharko dituzte: narratiba digital bat eta txosten idatzi bat. Hiru hilabete izango ditugu lan horiek burutzeko (otsaila, martxoa eta apirila) eta hasieratik bukaera arte lauhilekoko lau irakasgaiak zenbait ordu eskainiko dizkiote diziplinarteko lanari, aurkezpen eta feedback saioak barne. Gelan lana prestatzeko tartea eskainiko da. IKT irakasgaiaren kasuan, ordu gutxiago izango dira.

- **Narratiba digitala:** aniztasunari buruzko hausnarketa islatu behar da.



Lehen azpimarratu den moduan, hausnarketa egiteko bi aukera daude. Lehenengoa, “collage” moduko bat egitea, zeinak izandako esperientzia eta ekitaldiei buruzko hausnarketa islatu behar duen. Bigarrena aldiz, zuen baitan gehien eragin duen esperientzian sakonduz. Bi kasuetan iraupena berbera da, gehienez 3 minutu.

- **Testu idatzia, “egilearen testua”:**

- a) Burutu den narratiba eta proiektuaren aurkezpen eskutitza izan behar du. *Helburua*: burutu den lanaren balioa azpimarratzea. Lanaren justifikazioa. Proposatzen den narratiba digitalaren azalpen edota aurkezpena. Zer aurkezten duzue? Eta zergatik aurkezten duzue hori?
- b) Narratiba sortzeko prozesua: non izan dituzue oztopoak, zer islatu nahi izan duzue, zer lotura egin nahi izan duzue aniztasunaren gaiarekin?
- c) Lanean esperientzia edo ekitaldiekin egin dituzuen loturak, egin diren irakurketekin edota ikusi diren bideo, pelikula, eta dokumentalekin sortu dituzuen hausnarketak... Nolabait, integrazio lan bat egin behar duzue.
- d) Talde lanaren prozesuari buruzko hausnarketa: zer moduz joan da, non egon dira arazoak, nola kudeatu dituzue, errubrikak balio duen ala ez eta zertan... Nolabait, zuen buruari buruzko ebaluazio hezigarri bat egin. Abiapuntu bezala errubrika har dezakezue.
- e) Ekitaldi edo esperientziei buruz narratiban sartzerik izan ez duzuen baina komentatu nahi duzuen garrantzitsua iruditu zaizuelako.

Testuak 6/8 orrialde izango ditu gutxi gorabehera, 15.000/20.000 karaktere, tartekak kontatuz. Lanak forma aldetik zaindua eta elaboratua izan behar du. Idazkera akademikoa izan behar du eta erreferentziak eta bestelako baliabideak erabiltzen badira, APA arauak bete behar dira. “Egilearen testua” entregatu baino lehen, lehen zirriborro bat entregatu beharko duzue “hausnarketa txantiloia” (III Eranskina) oinarri hartuz. Ondoren, tutoreen feed-backa jaso eta azken bertsioa entregatzeko aukera izango duzuelarik. **Ezinbestekoa da hizkuntza koherentziaz, zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzea, ahoz eta idatziz.**

### **35. Aurkezpena eta feedbacka irakasle tutoreekin (prozesuaren ebaluazioa)**

Txostenetan jasotako lan ekoizpena gelakideen aurrean aurkeztuko da, zehaztuta dauden egunetan (prozesuak aurrera egin ahala zehaztuko da), eta horretarako bi eskola egun baliatuko dira, talde denek euren aurkezpenak egin ditzaten. Aurkezpenekin, funtsean, elkartruke horizontala sustatu nahi da, elkarrengandik ikasten jarraitu ahal izateko. Asmo berarekin, taldeek gainerakoen aurkezpenak ebaluatuko dira (ikus IV Eranskina)

Ahozko aurkezpena lan idatziaren irakurketa huts bihurtu ez dadin, hona irizpide batzuk:

- Ahozko aurkezpenak 20-25 minutu iraungo du (ez gehiago) eta taldekide guztiek parte hartuko dute. Minutu horietan narratiba digitala ere erakutsiko da.

- Azken 5 minutuetan galderen txanda izango da.
- Aurkezpeneko erabili ahal izango dira proiektorea eta pantaila, zein bestelako baliabideak. Fakultatean bertan ez dauden materialak ere ekarri ahal izango dira nahi izanez gero. Ongi baloratuko da sormena lantzea eta bestelako ereduak erabiltzea lana aurkezteko.
- Erabiliko diren baliabideak aldeztu aurretik frogatzea gomendatzen da. Horretarako, irakasle arduradun bat izango da aurkezpen aurreko egunetan, ordutegi finko batean, taldeak bertaratu eta euren tresnek ongi funtzionatzen dutela frogatzen laguntzeko. Garrantzitsua da, batez ere, soinua duten bideoak proiektatuko badira, hauek aldeztu aurretik frogatzea.

#### 4.-LAN PROZEDURA ETA EGUTEGIA


Moduluko irakasgaien ekarpena, aniztasunaren inguruan egingo den hausnarketa, etengabea izango da lauhilekoan zehar, eta litekeena da, kasu batzuetan, irakasgai bat baino gehiago aritzea moduluko lanean, aldi berean.

Moduluko lanari eskainitako saioetan, gelan ekingo zaio lanari, arduraduna den irakaslearekin. Saio hauetan taldeko **kide guztiek hartu behar dute parte** derrigorrez, eta bertaratu ez den ikasleren bat balego, irakasleari jakinarazi beharko zaio.

<b>16. astea, urtarrilak 27-31</b>	Moduluko koordinatzaileak moduluaren inguruko informazioa eskainiko du: aurkezpena, helburuak, metodologia, zereginak eta ebaluazioa, besteak beste.
<b>17. astea, Otsailak 3-7</b>	Irakasleek lan taldeak osatuko dituzte. Ikasleek <b>taldearen fitxa bete eta LM egelara igo beharko dute. Talde lanaren inguruko konpromisoak</b> ere adostuko dituzte.
<b>18-20 asteak, otsailak 10-28</b>	Irakasgai bakoitzean aniztasunaren inguruko oinarriak landuko dira. Tutoreen esleipena. <b>Hausnarketa txantiloia +diagrama tutoreari entregatu</b> beharko zaio.
<b>24 astea, martxoak 24-28</b>	Lanaren jarraipena tutoreekin.
<b>26 astea, apirilak 7-11</b>	<b>Narratiba digitalaren eskema tutoreari entregatu</b> (Feed- backa)
<b>29 astea, maiatzak 5- 9</b>	<b>Azken lanak LM egelan entregatu.</b>
<b>30 astea, maiatzak 12-16</b>	Moduluko lanen <b>aurkezpenak.</b>

## 5.- EBALUAZIOA

Diziplinarteko egitasmo honen ebaluazio prozesua prestakuntza eta hobekuntza aukera bat izan dadin, hiru ebaluazio ekimen bereizi ditugu. Hiruak ontzat ematen badira, emaitzak lauhilekoko irakasgaien azken notan %15ko (1,5 puntu) balioa izango du (1,2 kreditu, alegia). Jarraituko diren ebaluazio irizpideak (VI Eraskinean) zehazten dira.



Bestetik, ikasle bakoitzak ebaluatuko ditu lan prozesuko ibilbidea, lan dinamika, denboraren erabilera... (IV Eranskina). “Itzultze kritikoa” egiteko bi lan saio izango dira ikasturteko azken astean; esan bezala, irakasleek eta ikasleek prozesua bera eta ekoizpena aztertzeke eta iradokizunak eta proposamenak luzatzeko aukera izango dute. Aurkezpen egunean gainerako taldeen aurkezpenak ere ebaluatu beharko dira (V Eranskina).

## I ERANSKINA: TALDEA IZENDATZEKO FITXAEREDUA

**Taldearen izena:**

**Taldearen koordinatzailea edo harremanetarako pertsona:**

**Koordinatzailearen e-posta:**

**Lan taldeak baliatuko duen e-posta:**

**Lanaren izenburua:**

Izena	Abizenak	Argazkia

*Oharra: Taula hau bete eta moduluko koordinatzaileari entregatu behar zaio.*

## II ERANSKINA: talde lanaren inguruko hausnarketa eta konpromisoak.

Gero eta gehiago aipatzen da, beste zenbait lanbidetan bezala, ikas-irakaskuntzan ere talde lana ezinbestekoa dela, bai elkarbizitzarako eta baita lan giro ona izateko ere. Baina askotan ez da horrela gertatzen, faktore asko sartzen direlako tartean: norbere izaera, komunikazio arazoak, ikuspegi edo irizpide ezberdinak, aniztasuna, asertibitate eta enpatia falta... Hala ere, pentsatu behar dugu edozein ikastetxetan ongi ezagutzen ez ditugun edo gure gustuko ez diren pertsonekin lan egin beharko dugula, eta ezin izango dugu erabaki honekin bai eta horrekin ez. Askotan teoria ongi dakigu baina gero praktikan arazoak ditugu.

Bestalde, onartu behar dugu horrelako gatazkak sortzea normala dela, gatazkak bizi profesionalaren zati natural baitira. Gakoa non dago? Bakoitzak bere burua ongi ezagutzean, asertibitatea lantzean eta talde bezala egoera horiek kudeatzen jakitean.

Lan hitzarmena Anizastuna Eskola Moduluan 2025eko urtarrilaren \_\_\_\_\_ an.

Jarraian sinatzen dugun kontratu didaktiko honetan, guk Aniztasuna Eskolan Modulua osatzen dugun taldekideok, modulu honetako gidan jasotzen diren helburu eta zereginak irakurrita eta argibide guztiak aztertu ondoren, honako hitzarmena sinatzen dugu, erabakimen osoz.

Batetik, benetako talde lanean jarduteko konpromisoa honako adierazleetan zehazten dugu:

1.-

.....  
.....

2.-

.....  
.....

3.-

.....  
.....

4.-

.....  
.....

Honakook osatzen dugu taldea:

***Zein konpromiso hartzen dituzue talde hau osatzen duzuen kideetako bakoitzak?***

1 kidea (izena, bi abizenak eta konpromisoak):

2 kidea:

3 kidea:


4 kidea:

Sinadurak (ikasleena eta moduluko irakaslearena)

### III ERANSKINA: Haunarketarako txantiloia eta diagrama

IRAKASGAIAK	HAUSNARKETARAKO GALDERAK-GALDERA ERAGILEAK
<b>GIZARTE KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA</b> <b>ETA</b>	1. Hautatutako gaiak gizartean aurki ditzakegun kategoria sozial ezberdinekin (batekin sikiera) ba al du loturarik?
	2. Hautatutako gaia normatibitate sozialetik at dagoela dirudizu?
	3. Hautatutako gaia eraikuntza sozial eta kultural ikasia dela uste duzu?
	4. Hautatutako gaiaren iruditeri sozial nahiz kulturala sortu-erreproduzitzeko eragileak zein direla esango zenuke?
	5. Hautatutako gaia eskolan lantzerik legoke?Nola?
<b>INFORMAZIO KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK</b> <b>ETA</b>	1. Teknologia ba al du ikasleen aniztasunean eraginik?
	2. Nola erabili dezakegu teknologia zapalkuntza egoerak adierazteko?
	3. Nola erabili dezakegu teknologia era inklusiboan?
	4. Benetan teknologia neutrala eta ez kutsakorra al da?
	5. Teknologia ezkututzen al du zerbait?
<b>HAUR HEZKUNTZARAKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKAREN OINARRIAK TESTUINGURU ELEANITZETAN</b>	1. Zer lotura du eleaniztasunak hautaturiko gaiarekin?
	2. Zer lotura du kultura-aniztasunak hautaturiko gaiarekin?
	3. Zer lotura dago euskarazko hezkuntzaren egungo erronka nagusien eta hautaturiko gaiaren artean?
	4. Zer nolako eragina du testuinguru soziolinguistiko eta soziokulturalak hautaturiko gaiari dagokionez?
	5. Nola landu eta sustatu ditzakegu hizkuntza eta kultura gutxituak eta,aldi berean, aniztasunaren trataera egokia egin?
<b>ESKOLA INKLUSIBOAREN OINARRIAK</b>	1. Zer da aniztasuna zuentzat? Ikuspegi edo kontzeptzio erredukzionista edo zabala al duzue? Zein eragin izan dezake hautaturiko ikuspegi horrek, aniztasunari erantzuna ematerako orduan?
	2. Praktika inklusiborik al dago hautaturiko gaia lantzeko/jorrazteko?
	3. Inklusio irizpideak kontutan hartu al dira ikasgelan edo zentruan esku-hartze egokia egiteko?
	4. Nola identifikatu daitezke aniztasun desberdinak? Zein teknika edo metodo erabil daitezke?
	5. Zer nolako jarrera izan beharko lukete aniztasunaren aurrean irakasleek eta ikasleek gelaren barruan eta gelatik at?

III. ERANSKINA: DIAGRAMA ETA HAUSNARKETA TXANTILOIA





#### IV ERANSKINA: moduluaren ebaluazioa

1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue?
2) Moduluaren nondik norakoak azaltzen dituen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenukete? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenukete? Zeintzuk?

## V ERANSKINA: Aurkezpenak, taldeen arteko ebaluazioa

- Zein taldek ebaluatzen du?

- Nor ebaluatzen duzue?

1) Zer gustatu zaizu aurkezpen honetatik?
2) Zer dago hobetzeko?
3) Besterik?

## VI ERANSKINA: Ebaluazio irizpideak

<b>EGILEAREN TESTUA / HAUSNARKETA TXANTILOIA (0,6 puntu)</b>	Informazio iturriak (kopurua, kalitatea)
	Talde lana (bilerak, parte-hartzea)
	Alderdi formalak (hiztegia, ortografia, sintaxia)
	Edukia (pentsamendu kritikoa, hausnarketa)
<b>NARRATIBA DIGITALA (0,6 puntu)</b>	Osagai plastikoak
	Aniztasunaren printzipioaren ideiak
	Osagai teknologikoak
	Hitz eta hitz-gabeko komunikazioa
	Diziplinartekotasuna edo irakasgai desberdinen aniztasunaren inguruko ideien koherentzia
	Originaltasuna
<b>AHOZKO AURKEZPENA (0,3 puntu)</b>	Aurkezpenaren koherentzia
	Aurkezleen jakituria
	Hizkuntzaren zuzentasuna
	Hitz eta hitz-gabeko komunikazio trebetasuna
	Originaltasuna eta sormena